



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

## **2016KO EKAINAREN 20AN BATZARRAREN OHIKO BILKURAKO AKTA.-**

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2016ko ekainaren 20an, 19:05etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

### **BERTARATUAK:**

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua  
ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54): Kepa Gorostidi Garmendia  
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala  
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola  
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona  
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amundarain Tolosa  
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala  
ANOETAKO UDALA (%3,09): Aratz Luisa Urkola  
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre  
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika  
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia  
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregi  
IRURAKO UDALA (%2,73): Jesus Maria Alonso Insausti  
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasqueta  
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietta  
ORENDAINGO UDALA (%0,32): Gorka Egia Arregi  
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria  
VILLABONAKO UDALA (%9,61): Ibon Ariznabarreta Urdampilleta  
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

### **ETORRI EZ DIRENAK:**

ALBIZTURKO UDALA (%0,53)  
ASTEASUKO UDALA (%2,49)  
BALIARRAINGO UDALA (%0,21)  
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)  
ELDUAINGO UDALA (%0,39)  
GAZTELUKO UDALA (%0,28)  
HERNIALDEKO UDALA (%0,57)  
LIZARTZAKO UDALA (%1,05)  
OREXAKO UDALA (%0,20)

### **GAI ZERRENDA**

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

1. 2015eko abenduaren 23ko Batzarraren Akta onartzea.
2. 2016ko urtarrilaren 18ko Batzarraren Akta onartzea.
3. 2016ko apirilaren 21eko Batzarraren Akta onartzea.
4. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20151217.066 zenbakitik LE20160609.044 zenbakira
5. 2015 ekitaldiko aurrekontuaren Likidazioaren berri ematea.
6. 2016 ekitaldiko materia organikoaren tratamendu gastuen banaketa proposamena.
7. 04-2016 zenbakiko Kreditu Gehigarrien espedientearen onespena
8. Tolosaldeko Mankomunitatea eta UTE Tolosaldearen artean izenpetutako kontratuaren aldaketa proposamena, hiri hondakinen eta garraio zerbitzuaren ingurukoa: Andoain eta Villabonako zabor bilketa zerbitzuen aldaketa.
9. Epe motzeko kontratazio proposamena: Tolosaldeko Mankomunitatearen zabor bilketa zerbitzu berriaren kontrataziorako proposamenen azterketa.
10. Hornidura kontratazioa: Etxeko hondakin arriskutsuen bilketarako etxolak, baldintza pleguen onespena.
11. Gipuzkoako Bazkudearekin sortzaile txikien hondakin arriskutsuen bilketarako Lankidetzaren Hitzarmena berritzea.
12. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Tolosaldeko Mankomunitateko hiru Batzarkideentzako funtsezko eskubideen babeserako estaldura onartzea.
13. Bestelakoen berri ematea:
  - Kontratazioak:
    - Albo-kargako kamioiaren hornidura: GEESINK
    - Albo-kargako edukiontzien hornidura: PLASTIC OMNIUM
    - Andoainen materia organikoaren bilketa ezartzeko komunikazio kanpaina: SPORA INGURUMEN ZERBITZUAK
  - Birziklatu tentuz eta zentzuz komunikazio kanpainaren balorazioa
  - Hondakinen karakterizazioak: errefusa, ontzi arinak eta organikoa.
14. 2016ko hiri hondakinen bilketa datuak.
15. 2016ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak:
  - Andoango bostgarren edukiontzia ezarpenerako komunikazio kanpaina.
  - Tolosako Alde Zaharreko hondakinen bilketa bizikleta elektrikoaren bitartez.
16. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanuek eman dio fede ekintzari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Gaztelu, Lizartza eta Orexako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutu-tutako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

LIZARTZAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

OREXAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.



Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

**1. 2015eko abenduaren 23ko Batzarraren Akta onartzea.**

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

**2. 2016ko urtarrilaren 18ko Batzarraren Akta onartzea.**

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

**3. 2016ko apirilaren 21eko Batzarraren Akta onartzea.**

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

**4. Lehendakariaren Ebazpenen berri eman: LE20151217.066tik LE20160609.044ra.**

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20151217.066	LE20160229.011	LE20160427.028
LE20151229.067	LE20160304.012	LE20160428.029
LE20151229.068	LE20160304.013	LE20160428.030
LE20151229.069	LE20160311.014	LE20160502.031
LE20151229.070	LE20160314.015	LE20160504.032
LE20151229.071	LE20160318.016	LE20160504.033
LE20151230.072	LE20160331.016.bis	LE20160504.034
LE20151230.073	LE20160401.017	LE20160504.035
LE20160121.001	LE20160405.018	LE20160511.036
LE20160121.002	LE20160412.019	LE20160517.037
LE20160126.003	LE20160413.020	LE20160517.038
LE20160121.004	LE20160415.021	LE20160525.039
LE20160126.005	LE20160418.022	LE20160601.040
LE20160202.006	LE20160420.023	LE20160603.041
LE20160215.007	LE20160421.024	LE20160603.041.bis
LE20160217.008	LE20160425.025	LE20160606.042
LE20160223.009	LE20160426.026	LE20160606.043
LE20160224.010	LE20160427.027	LE20160609.044

Batzarra jakinaren gainean geratu da.



## **5. 2015 ekitaldiko aurrekontuaren Likidazioaren berri ematea.**

Mankomunitateko Kontuhartzaileak 2015. ekitaldiko Aurrekontuaren Likidazioaren berri eman du. Likidazioa onartu duen Lehendakariaren Ebazpenak horrela dio, hitzez-hitz:

"Mankomunitate honen 2015eko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### **EBATZI DUT**

**Lehena.-** Mankomunitate honen 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### **DIRUZAINZTA GERAKINA**

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2015-12-31n:		1.946.079,03
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		1.050.068,66
Aurrekontuko zordunak :	1.028.753,34	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	21.315,32	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2015-12-31n:		852.327,41
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	812.636,83	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	39.690,58	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		2.143.820,28
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		2.143.820,28
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
<b>8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):</b>		<b>2.143.820,28</b>

#### **AURREKONTUKO EMAITZA**

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	459.119,10
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-16.891,18
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	171.422,67
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
<b>5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):</b>	<b>613.650,59</b>

#### **KREDITU GERAKINAK**

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	1.185.573,54
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	147.427,70
3.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	1.333.001,24



**Bigarrena.-** Jarraian aipatzen diren kredituak 2016ko aurrekontura txertatzea:

<b>Partida</b>	<b>IFK</b>	<b>Interesatua</b>	<b>A (Baimendua)</b>	<b>D (Baliatua)</b>
1 227.12.162.10 2015		Hainbat (konpostajearen plangintza: IV. Fasea)	49.000,00	
1 226.99.162.10 2015	B255160071	ID WASTE	9.200,00	9.200,00
1 622.01.162.10 2015		Hainbat (Hondakin arriskutsuen etxolak)	72.000,00	
1 624-01.162.10 2015		Hainbat-Varios (Kamioiaren hornidura)	290.400,00	
1 625.01.920.00 2015	B20353397	Echarri Equipamientos de oficinas	1.000,00	1.000,00
1 626.01.162.10 2015	B55160071	ID WASTE	9.600,00	9.600,00
<b>GUZTIRA</b>			<b>431.200,00</b>	<b>19.800,00</b>

Aurreko kreditu-txertaketaren ondorioz gastu orokorretarako altxortegi gerakinaren zenbatekoa hau da:

2015eko Aurrekontuaren likidazioko gastu orokorretako altxortegi gerakina	2.143.820,28
Kreditu-gerakinen txertaketa	431.200,00
<b>GASTU OROKORRETARAKO ALTXORTEGI GERAKINA</b>	<b>1.712.620,28</b>

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Laugarrena.-** Batzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Beraz, laburbilduz, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 1.712.620,28 eurokoa da, eta 2016 urterako geratzen da erabili nahi izanez gero.

Jarraian, “Aurrekontu egonkortasunaren eta Finantza iraunkortasunaren helburuak eta Gastu Araua betetzeari buruzko txostena” azaldu da. Banan-banan esplikatu dira legediak ezarritako hiru arauak:

1. Aurrekontuen egonkortasuna: sarrerak gastuak baina handiagoak izan direnez, superabita dago 2015eko kontuen likidazioan. Beraz, mankomunitateak bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2015erako helburua.
2. Finantzen iraunkortasuna: mankomunitateak zorrik ez duenez, 2015erako kontzeptu honegatik ezarritako helburua bete egiten du.
3. Gastuaren araua: 2014 eta 2015eko ekitaldien artean, gastu konputagarrien bariazioa -%7,00 izan da. 2015erako ezarritako helburua kontzeptu honegatik %1,50 baino handiagoa izan ez denez, mankomunitateak bete egiten du 2015erako gastu araua.

Ondorioz, Tolosaldeko Mankomunitatea ez dago behartuta plan ekonomiko-finantzariorik onartzera.

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

## **6. 2016 ekitaldiko materia organikoaren tratamendu gastuen banaketa proposamena.**

Lehendakariak hartu du hitza, materia organikoaren tratamendu gastuaren 2016ko egoera azaltzeko, jarraian agertzen diren bi taulekin batera:

### **1. TAULA: 2016 EKITALDIRAKO ERREFUSA ETA ORGANIKOAREN TRATAMENTU TASA (GHK)**

<b>ERREFUSA (BEZ BARNE)</b>	<b>173,118</b>
<b>% ORGANIKOA / (ORGANIKO+ERREFUSA)</b>	<b>ORGANIKOA (€/TONA)</b>
0-10%	147,1503
10-20%	138,4944
20-30%	129,8385
30-50%	121,1826
> 50%	112,5267
<b>TOLOSALDEA</b>	<b>121,1826</b>

\*\*Prezioak BEZa barne

### **2. TAULA: DEFIZITAREN BANAKETA PROPOSAMENA (TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA)**

<b>% ORGANIKOA / (ORGANIKO+ERREFUSA)</b>	<b>DEFIZITAREN %</b>
< 30%	70%
30-50%	30%
> 50%	0%

Lehendakariak, honela dio hitzez hitz: “Guztiok dakizuenez, joan den 2015eko abenduan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak 2016ko ekitaldirako tarifak aldatu zituen: alde batetik, errefusaren kudeaketagatik prezioa igo zuen, eta, bestetik, materia organikoaren kudeaketagatik aplikatzen zen hobaria aldatu zuen, finkoa izatetik aldakorra izatera, eta Mankomunitate bakoitzak bildutako organiko kopuruan oinarrituz finkatutako portzentaje-tarte batzuen arabeko prezioak ezarri zituen, 1. Taulan ikus daitekeen moduan (prezio horiek BEZa barne dute). Tolosaldeko Mankomunitatea %30-50 tartean barneratu dute.

Organikoaren kudeaketa gastua Udalen artean banatzeko, guztiei prezio berbera aplikatu beharrean, udalerrri bakoitzak sortzen duen organiko portzentajearen arabeko prezioa aplikatzea adostu genuen hemen, aurreko aldi batean. Mankomunitatea gastu hau banatzeko fiskalitatearen kalkulu-orria egokitzen aritu da, eta horregatik daramagu Udal guztiok ia 6 hilabete kontzeptu honegatik fakturarik jaso gabe.

Proposamena, beraz, herri bakoitzak bere organiko kopuruaren arabera ordaintzea da, GHK-ren tarte horietan oinarrituz (1. Taula). Fiskalitate-orrian formula berri hau txertatuta, defizit txiki bat sortzen da ordea. Hau da, udalerrri askok, Mankomunitatea kokatzen dena baino tarte hobean daudenez (> %50), prezio baxuagoa ordainduko liokete, eta hala, Mankomunitateak GHK-ri ordaindu behar diona baino diru gutxiago biltzen du.



Honen aurrean, sorturiko defizita konpenstatzeko 2. Taula proposatzen da, hau ere herri bakoitzaren organiko kopuruaren arabera banatua. Formula hau, gauzak hobekien egiten ari diren herriak saritzeko modu bat litzateke.”

Gorka Egia Arregi, Orendaingo Udaleko ordezkaria: “Taula horietatik adierazgarri egiten zait %50eko gehieneko birziklapen tasa jartzen dela, hori baino organiko gehiago birziklatzea ezinezkoa balitz bezala. Beste taula bat egitea proposatzen dut, beste portzentaje-tarte batzuekin.

Bestalde, aipatu nahi dut herri batzuetan gure kabuz kudeatzen dugula organikoa eta GHK-an ez dutela kontuan hartzen kopuru hori formulak aplikatzerakoan. Uste dut egokia litzatekeela honen inguruan GHKri zerbait esatea, herri batzuetan kudeatzen dugun organiko kopuru hori ere kontuan har dezaten.”

Lehendakariak: “Gai honi dagokionez, badakigu beste Mankomunitate batzuek ez dutela gastuaren halako banaketarik egiten, eta bere herri guztiei GHK-ak kobratzen dien prezio bera aplikatzen diela. San Markok esaterako, berdin-berdin kobratzen die Donostiako zein Usurbilgo Udalari, kontuan hartu gabe bakoitzaren organikoaren birziklapen tasa. Guk desberdintzea erabaki genuen, eta zuk diozun moduan beste taula bat egin daiteke, noski, hobeto egiten dutenei hobari gehiago emanaz. Baina nik proposatzen dut orain, 2016. ekitaldirako, taula hauekin hastea, eta egin daitezkeen aldaketa edo hobekuntzei buruzko eztabaida datorren urteko fiskalitaterako uztea.

Bestetik, organikoa bere kabuz kudeatzen duten herri txikien kasuan, datu horiek ere kontuan hartzeko proposatuko dugu GHK-an. Baina dakigunez, GHK-ak bildutako tonak adierazterako orduan estimazioekin egiten du lan, eta inoiz ezin da jakin zehatz-mehatz zenbat biltzen den herri bakoitzetik.”

Teknikariak: “Besterik gabe argitu nahi dut tarifa edo prezio hauek hilabete bakoitzean aplikatuko direla, hau da, hilabete bakoitzeko bilketa datuekin. Beraz baliteke, herri batek hilabete batetik bestera ordaindu beharreko prezioa ezberdina izatea.”

Ondoren bozketa egin da, eta Batzarrak ahobatez

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** 2016 ekitaldiko materia organikoaren tratamendu gastuen banaketarako proposamena, ondorengo bi tauletan agertzen dena, onartzea.

**1. TAULA: 2016 EKITALDIRAKO ERREFUSA ETA ORGANIKOAREN TRATAMENTU TASA (GHK)**

<b>ERREFUSA (BEZ BARNE)</b>	<b>173,118</b>
<b>% ORGANIKOA / (ORGANIKO+ERREFUSA)</b>	<b>ORGANIKOA (€/TONA)</b>
0-10%	147,1503
10-20%	138,4944
20-30%	129,8385
30-50%	121,1826
> 50%	112,5267
<b>TOLOSALDEA</b>	<b>121,1826</b>

\*\*Prezioak BEZa barne

**2. TAULA: DEFIZITAREN BANAKETA PROPOSAMENA (TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA)**

<b>% ORGANIKOA / (ORGANIKO+ERREFUSA)</b>	<b>DEFIZITAREN %</b>
< 30%	70%
30-50%	30%
> 50%	0%

**BIGARRENA.-** Onartutako taulen arabera, Udal bakoitzari dagozkion kitapenak egitea.

**7. 04-2016 zenbakiko Kreditu Gehigarrien espedientearen onespena.**

Kontuhartzaileak Mankomunitate honen 2016 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontuko zenbait partidatan kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman du, ondorengo proposamena egiten delarik:

**Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena**

<b>Gastuen partida</b>	<b>Azalpena</b>	<b>Kredituak</b>		
		<b>Egungoak</b>	<b>Aldaketak</b>	<b>Behin betikoak</b>
1 226.99.162.10 2016	Beste hainbat gastu. Hezitzaile, kanp...	176.000,00	25.000,00	201.000,00
1 625.04.162.10 2016	Zabor bilketarako edukiontzia	60.000,00	75.000,00	201.000,00
1 626.02.162.10 2016	Garbigunet. ekipoe.inberts.: kamera-ekip.	0,00	3.500,00	3.500,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>236.000,00</b>	<b>103.500,00</b>	<b>339.500,00</b>

**Finantzaketa**

<b>Kod.</b>	<b>Partida</b>	<b>Azalpena</b>	<b>Zenbatekoa</b>
a	2 870.01 2016	Kreditu gehigarrien finantziazioa	103.500,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>103.500,00</b>





Kontuhartzaileak: “Espediente hau aplikagarri zaion araudiari egokitzen da, zehazki abenduaren 19ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa 21/2003 Foru Arauak, 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen da.

Era berean, Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta Mankomunitate honek ez du betetzen 2016rako aurrekontuaren egonkortasun eta gastu araua. Beraz, Mankomunitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako defizita eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioak 2013ko otsailaren 8ko eta 2014eko azaroaren 17ko Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, Kontuhartzaile honek berariazko txostena bat egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Kreditu Aldaketarako espediente honek honako finantziarioa du:

- Altxortegi gerakina.....103.500,00€
- Gastuen sorrera.....103.500,00€

Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu Gehigarriaren espediente honek ez duela Mankomunitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

Teknikariak: “Kreditu aldaketa honen arrazoi nagusia, Mankomunitateko zenbait udalerritan aurrikusten den hondakinen bilketa-sistemaren aldaketa da, eta honi loturik batik bat edukiontzi gehiago eskuratzeko beharra. Aurrekontuan horretara bideratutako kontu-sailen egungo zenbateko erabilgarria ikuristik, baliteke saldo horiek justu samarrak izatea urte amaierari begira, eta horregatik kreditua gehitzea proposatzen da. Nahiz eta balitekeen azkenean kreditu hori erabili beharrik ez izatea.”

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak aho batez honako hau

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Mankomunitate honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:





TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA









TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA









TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA



Baliteke datu hau ez egotea zuzenean bilketa-sistema horri loturik, eta again epealdia aldatuz gero datuak ere aldatzea, baina gaur egun behintzat horiek dira emaitzak.

Eskualde mailan gaikako bilketa portzentajearen 2015eko itxiera-datua %60,44koa izan zen, eta 0,796kg./biztanle biltzen ziren. 2016ko urtarrila eta maiatza bitarteko epealdi honetan, %59,55eko gaikako bilketa portzentajea gaude, eta 0,827kg/biztanle biltzen dira. Beraz hondakin gehiago biztanleko, eta birziklatze-tasaren jaitsiera, baina hamarren batzuen kontua da. Ikusi egin beharko dugu urte bukaerari begira joera hau mantentzen ote den.

Era berean, karakterizazioarekin frakzio bakoitzaren barne zer dagoen jakin ahal izango dugu. Batik bat Andoainen aldatuko da, materia organikoa ere gaika biltzen hasiko delako (gaur egun errefusaren barruan baitago). Eta landa eremuan ere errefusaren igoera nabarmenagoa izan den arren, kasu honetan ere organikoa errefusa horren barruan dagoela kontuan hartu beharra dago, eta beraz ez da gainerako herriekin zuzenean konparagarria.”

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Beraz igoera horiek ondo edo gaizki, nola hartu ikusi beharko dugu. Baliteke krisitik ateratzen ari garenaren seinale positibo bat izatea, baina hau ez da beti horrela. Helburuak hondakinen sorrera gutxitzea izan behar du, eta beraz hondakin gehiago biltzeak ez du derrigor ona izan behar.”

Hala bada, Batzarra jakinaren gainean geratu da.

---

20:30etan Berrobiko Udaleko ordezkaria atera egin da.

---

### **15. 2016ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzak.**

- **Andoingo bostgarren edukiontzia ezarpenerako komunikazio kanpaina.**
- **Tolosako Alde Zaharreko hondakinen bilketa bizikleta elektrikoaren bitartez.**

Teknikariak hartu du hitza eta honela azaldu du, hitzez hitz: “2016. ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduko dituen proiektuak, materia organikoarekin lotura dutenak dira, batik bat. Mankomunitate honetatik, izenburuan adierazitako bi ekimenetarako diru-laguntza eskaera aurkeztu dugu.

Batetik, eta dagoeneko adierazi den moduan, Andoainen bosgarren edukiontzia ezarriko da. Ondorioz organikoa gaika biltzen hasteko komunikazio kanpaina bat jarriko da abian eta kanpaina hori finantzatzeko diru-laguntza eskatu da.

Bestetik, esperientzia pilotu gisa, Tolosako Alde Zaharreko arrandegietako kartoi bilketa, orain arte kamioi biltzaile txiki batekin egiten zena, bizikleta elektriko baten bidez ari gara egiten. Proba fasean gabiltza oraindik, bere abantailak eta eragozpenak ikusteko.”

Alegiako Udaleko ordezkariak: “Ibilgailu hori Mankomunitateak finantzatzen al du?”

Teknikariak: “Bai, hala da.”



Alegiako Udaleko ordezkariak: “Orduan Mankomunitatea osatzen dugun beste herrietan ere erabili al genezake bizikleta edo ibilgailu hori?”

Teknikariak: “Kontua da bizikleta horrek ezin dituela edonolako aldapak igo, eta, ziurrenik, beste herri gehienetan bere erabilera ez da bideragarria izango. Halere, esan dudan moduan oraindik probak egiten ari gara eta ikusi beharko da arrandegietako materialarekin nola moldatzen den”.

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Orain bizikleta bat dela diogu, baina ziurrenik azkenean motordun ibilgailu txikiak erabiltzen amaituko dugu, Tolosaz gain baita beste herrietan ere. Edonola ere, ona litzateke Mankomunitateak dituen baliabideak udalerrri guztietan erabili ahal izatea.

Eta honen harira, adibide bat jarriko dut. Tolosak periferia zabala du, eta eremu asko ez dira ez landa eremuan, ezta hirigunean ere barneratzen. Hala ere ezin ditugu eremu horiek beste herri batzuekin batera ibilbide berean sartu, herri bakoitzarena bereizita bildu behar delako (bereizita bildu, pisatu, etab.). Gure kasuan, honek asko mugatzen gaitu eta eragozpenak sortzen dizkigu.

Duela gutxi UTE Tolosaldearekin ere hitz egin genuen honi buruz: baliabideak optimizatu behar ditugu. Tolosako ikastoletan gertatzen ari dena jar dezaket adibide gisa. Eta UTEarekin negoziatzen ari garen garai honetan, gai hau ere mahai gainean jarri beharko genuke.

Bat nator lehen Egia Jaunak (Orendaingo Udaleko ordezkariak) esandakoarekin: guztiok hartu behar dugu hobetzeko konpromisoa. Baina horretarako baliabideak ere guztion esku jarri behar dira.

Alegiako Udaleko ordezkariak: “kasu honetan, hitzetatik ekintzetara pasatzea da zailena. Lehentxeago aipatu den moduan, urte garrantzitsua dator Mankomunitatearentzat, eta norberak bere interesak defendatzen dituen bezalaxe, Mankomunitateak bereak ere bai.

Aurreko legegaldian Mankomunitate honek egindako esfortzuaren emaitza nagusia datuak dira, ikusi ditugu. Eta orain erronka hori jarri beharra daukagu mahai gainean: izpiritu hori mantendu eta hobetzen jarraitzea, Mankomunitatearen interesak defendatuz”.

Hala bada, Batzarra jakinaren gainean geratu da.

## **16. Galde-erreguak.**

Lehendakariak honela esan du, hitzez hitz: “Lehentxeago GHKrekiko alegazio eta auzien egoera azaldu dut. Gaineratu nahi nuen edonork informazio hori ikusi nahiko balu, dokumentazio osoa Mankomunitateko bulegoan dagoela guztion eskuragarri.



Dakizuenez, herri askotako Udalek ezarri dute Ingurumen Baimen Bateratuaren aurkako gorako helegitea. Mankomunitate honetatik informazio gehigarria eskatu genuen helegiteak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorako epea agortzen ari zenez eta ezer igortzen ez zigitenez, informazioa berriro erreklamatu genuen eta alegazio-epea zabaltzeko eskatu genuen. Azkenean informazio gehigarri hori gabe prestatu behar izan genituen alegazioak, eta horiek aurkezteko epea amaitzen zenean, azken egunean hain justu, karpeta handi bat iritsi zen Mankomunitateko bulegora, egundoko informazio piloarekin. Eta, gainera, alegazio-epea zabaltzeko eskaerari ezezkoa emanez. Guzti honek agerian uzten du erraustegiaren gaiarekin zein gardentasun mailarekin jokutzen ari diren.

Bada besterik gabe esan nahi nizuen gai honi buruzko informazio guzti hori eskuragarri daukazuela, hala nahi izanez gero.”

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko bederatzia eta laurden gutxiagotan (20:45), Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

**LEHENDAKARIA**

**IDAZKARIA**

























